

Gerardo Lopez de Guereñu Iholdi: In memoriam


Gerardo Lopez de Guereñu Iholdiren heriotzak, urtarrilaren 11an gertaturikoak, orri hauek iluntzen ditu.

Gerardo Lopez de Guereñuren kultur lanaren parte garrantzitsu bat Eusko Ikaskuntzan eginikoa zen. Eusko Ikaskuntzako Antropologia eta Etnografia Saileko kide gartsua zen, Arabako Lehendakariorde genuen eta, gainera, *Eusko Folklore Urtekariaren* eta *Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkariaren* Erredakzio Batzordeko partaide zen.

Mendizalea izaki, Izadia maite eta bizi zuen izpiritu pedagogiko batez, eta honen emaitza da argazkietan gauzatutako artegintza emankorra. Mendizale-tasuna eta argazkigintza, hona hemen Lopez de Guereñu Iholdiren Etnografi lan miresgarriak etengabe abestera etorritako bi alor.

Gerardo Lopez de Guereñuk ez zion amore ematen erretorikari, ez eta dibagazio inprobisatuari ere. Luma ere xehea eta zehatza zuen, idazgaia sakon ezagutzeak emandako baliapideez landua. Etnografiaren alorrean egindako lan handi bezain garrantzitsua eredugarria da, metodo eta zehaztasun zientifikoaz burutua.

Gizatasun haundiko izaera zuen Lopez de Guereñuk. Lege oneko laguna genuen, adiskidetasun zintzo eta desinteresatuaren aldekoa. Lagun guztiok maitatua genuen horregatik, eta betirako izango dugu gogoan bera ezagutzeko zortea izan genuenok. *Eusko Ikaskuntzen Nazioarteko Aldizkariak* bere dolumina adierazi nahi du euskal kulturaren ikerle sutsu eta mirestu honen galeragatik.



Gerardo López de Guereñu Iholdi : [In memoriam] / [Juan Garmendia Larrañaga]. - En: *Revista Internacional de los Estudios Vascos*. - Donostia : Eusko Ikaskuntza. - T. XXXIV, 1 (1989), p. [10]